

Jean Jacques De Felice

Frantziako Giza Eskubideen Ligako lehendakariordea eta abokatu

Parisko auziko gaua

■ Bost eguneko audientzia, entzuketak hamarnaka, erantzunak, lekukotasunak, Parisko tribunaleko 12 gela korrekzionalean, 80 euskaldun eta bretoi «enpresa terroristak» batekin loturiko elkarte gaiztaginaren zirikusia dutelakoan inkulpatuak, uneoroko tentsioa, pertsona bat edo beste defendatzeko zailtasunak, bere iraganarekin, bere izatearekin, nahaste orokor batean bere hitza eramana: auzi politiko ikaragarria, lana ez bete izanaren sentimendurekin uzten duan auzia.

Inpresio batzuk adierazteko beharra sentitzen dut, auzi hau segitu duena baino presa guttiago duen batekin, atentzio gehiago ezarriko duen eta bihotz zabalagoa duen irakurle batekin. Funtsezkoa errana izan ez balitz bezala, oraindik ere juleak konbentzitu eta berarekin itxuraz aterabide gabeko arazoeri nunbaitik aterabideak bilatu nahian bezala. Indarkeria guzietan, bilatze pazientziakoa, bakezalea, elkarrizketak, solasketak kontra jarritz.

Garrantzi honetako auziak, aintz itxura dauka. Batzuk espektakuluak txunditzen ditu: sartu, atera, oihukatu, keinu baiezatu, irribarre egin, negar, jaiki, deitu. Denbora aintza doa eta nekeak gainerakoa egiten du: hara hor mediku batek euskaldun su: magarriei jasanarazten dizkien torturak —gaur egin Espainian— xehetasun haundiz salatzen. Parisko *generale* egonaldi batean dirudi. Kazetariak juleak, publikoa, denak gutti edo aski hizketan ar dira: bestela egin izan eta egin izan dugu iduritzez. Laiz, entzun edo ulertzen saiatu. Baina ez naiz kezkatzen: garaia etorriko da.

Nere mintzaldia, pixka bat era probokagarrian hasi dut, aitortzen dut; baina zurrumbilo horretan entzun nazaten izan da. Eta nere lehen hitzen ondotik: «Ohore Euskal Herriari, ohore bretoin populuari» isiltasun osoa zabaldu zen; zeren neretzat, momento horretan aurpegiatutako ekintzek (euskal iheslariari aterbe ematea, Euskal Herriaren borroka sustengatzea) estimua merezi zuten eta ez mesprezua; bakerako bideak ezin dira ideki, etsaiaren izatea eta kuraia ez baldin badira onartzen? Proporzio guztiak gorderek Aljeriako gerlan De Gaulle generalak ongi adierazi zuen idea: «Zintzoen bakea».

Ordu askotako akusazioa, hamar mintzaldi entzun ditut. Denetaz aspertzen gara eta ez da ezer erraz bihurtzen. Noski dena prestatua izan da, pisatua, bainan

«Ohore Euskal Herriari, ohore bretoin populuari» isiltasun osoa zabaldu zen; zeren neretzat, momento horretan aurpegiatutako ekintzek estimua merezi zuten eta ez mesprezua

nere argumenturik onena jada erabili izan da, beste ideia bat zentzugabea gertatuko litzateke, bakoitzak laburra izan nahi du deusik ahanzi gabe. Beraz, ohar-tzen naiz. Presidenteak hitza ematen didan unean, asmatu beharko dudala. Abokatu bat, honelako auzi batean, ez da ezertaz segur: iguripena, kezka, tentsioa, arrabotsa, nahasmendua, antzezlea kezkatu bihurtzen dute, gibelean publiko mugikorra dauka eta bere aintzinean hormazko bainan iduri duten baina haserreago juleak.

Ez naiz kezkatzen: tentsio bereziko une hauek atsegin ditut, norberak bere hoberena eman, boza altza edo apaldu, ideia ainitzen artean aukerak egin, inkulpatuen egia erran, terrorismoaz mintzatu, St Michel metroko atentua ahanzi gabe —erahilietaz baliatu gabe eta ere ahanzi gabe—. Bi aldeetako hilen kontaketa egin, gure erantzukizuneri buruzko gogoetak egin, gure utopiak zirrimarratu...

Jacques Maury, Maurice Barth, Madeleine Reberrioux, Antoine Sanguinetti lekukotasunak egitera deitu ditugu. Beren lekukotasuna bikaina izan zen, Steinmann Presidentearen galderen erantzunetan bezala eta batez ere etengabe eginiko galdera honetan: «Terrorista batek, gaizkile batek zure atea jotzen du; aterbetze eskubidearen izenean, sarrarazi behar al duzu?». Beren erantzunak agertu eta komentatu nahi nituzke. Gure arteko bakoitzak ulertzen ditu honelako galderak. Tronpatzeko arriskua. Inozenteak izan gaitzke.

Auzi honetatik, elkartasuneko auzi honetatik, indarturik ateratzen naiz. Defenditu ditudanak eskertu didate. Laguntzaile eta lankide askok —behar den bezala— zoriandu naute. Zintzoak al ziren? Ez du axolik. Baina, han lanean zegoen jandarmeriako ofizial baten konplimenduek hunkitu naute. Pasabide batean elkarturik zera esan dit hitz beroekin, nik esan nuen guzia eta erraiteko manera gustatu zitzaizkiola eta hiritar gisa, auzi hau adorez beterik uzten zuela, aitortu zidan.

Luzegia gertatuko litzateke defentsak erabili bideak xeheki azaltzea. Auzia gure hizkeran erraiten dugun bezala *mis en délibéré* da —erabakiaren zain dago—.

1771n Dinouart apezak argi agertu zuen bere *Art de se taire* liburuan: «Isiltasuna baino gehiago balio duen zerbaitek eraitako dugularik, isilik egoteari eutsi behar diogu». ■

Xabier Olarra



Zinismoaren eskola

Beti izan naiz Diogenesen mireslea. Eguerdi bete-betean farola eskuan zuela Atenasko plazaren erdira atera eta gizon baten bila zebilela eginez ibili zenaren pasadizo gogoangarriak beti izango dira lezio bikaina, ikasi nahi duenarentzat. Gauzei beren konbentzioen azala kendu eta gordin-gordin diren-direnean ikusteak noizean behin mesede egiten duela uste dut, nahiz eta gizarteko konbentziotarik gabe gaur egun ezingo ginatkeen bizi, jakina. Bakotza pentsatzen duena lau haizetara aidarrikatzen hasiko balitz... kitto.

Halaz guztiz ere, *zinismo* hitzak gaur arte egin duen bidean sekulako karga peioratiboa hartu du. Pena izugarria ematen dit, baina hitzaren gaurko zentzuaren karga aldatzea ez dago nire esku. Beraz, gaurko zentzuari hitza hartuz, begira esate baterako zer dabilzan M. Conde, De la Rosa, Urralburu eta konpainia azkenaldi honetan. Horiek zinismoaren Nobel Sarria irabaziko luketen arren, ez da oso zorrotza izan behar zinismoa gaur egungo politikako eta beste zenbait arlotako ezinbesteko ezaugarri bihurtu dela konturatzeko. Gai honetaz pentsatzen dudanean beti gogoratzen zait beste harena. Honela galdetu omen zioten bati:

— Hi, hik zer egingo huke andreak ohean beste norbaitekin harrapatuko bahindu?

— Eta haren erantzuna:

— Niik? Ukatuuu.

Badirudi hori dela politikan eta beste zenbait arlotan hasi behar duenari erakusten dioten lehenbiziko lezioa, edo agian bakarra.

Txillardegia



Irakiten

I tsu batek ere errepara dezake hau: gure herria irakiten ari dela. Frantses zapalkuntza gero eta gordinago nabaritzen da Iparraldean. Aste hauetan, prentsa abertzalea ito nahia nabarmendu da: multa gaitzak erabaki ditu Parisek *Enbata* eta *Ekaitza* hiltzeko. Artea, urrats berriak egin ditu Espainiarekiko tentsioak mila manifestazio eta kontramanifestazioetan eta are berezikiago Madrilen atzoko atentatu gogorrecan. Politika munduaren ustelkeriaren pozoiak ere ikutu gaitu: Euskal Herriaren *homologazioa* beheko alde horretatik saiatu nahi balute bezala. Publika-pribada dikotomia ere bultzatu da; eta gure ekonomia bera, errotik birrindu. Baina euskal arazoa behin eta berriz agertu da: hemen ez dago *pakea* eraikitzerik. Murtzian, Limogesen, Münsterren bai baina Bosnian eta Sri Lankan ez, zergatik ote? Hauxe da egin behar litzatekeen galdera bakarra. Galdera hori ausarki aztertu eta erantzun ez deno, hemen jai baitago, baita egongo ere. Grozniy eta Jaffnan bezala eta arrazoin berberengatik hemen ez dago bakerik.

L A P h I T Z A

